

OLAIA KASTRESANAREN HERIOTZA. Herenegun Alacanten izandako leherketan hildako gazte donostiarraren oroimenez, protesta ekitaldi ugari egin ziren atzo. Gaurko borroka egunera deitu dute AABek, eta bihar greba eguna izango da Donostian.

Ezker abertzaleak mobilizazioekin erantzun dio Kastresanaren heriotzari

Manifestazioak egin ziren, gaur borroka eguna izango da, eta bihar greba orokorrera deitu dute Donostian

X. Makazaga - A. Arzallus | DONOSTIA

Olaia Kastresanaren omenez mobilizazio ugari izan ziren atzo, eta egunotan gehiago izango dira. Alacanteko leher-

ketan gazte donostiarra hil zela jakin orduko, zenbait herritan manifestazioak egin ziren herenegun gauean, eta atzo egun osoan zehar izan ziren mobilizazioak. Arratsean izan ziren

nagusiak, Batasunak mobilizaziora deitu baitzuen eskualde buruetan. Gaurko, borroka egunera deitu dute Amnistiaren Aldeko Batzordeek. Mobilizazioak 12:00etan eta 20:00eta izan-

go dira. Biharko, greba orokorrera deitu du Donostiako ezker abertzaleak.

Batasunak deituta Donostian egin zen atzoko manifestazio handiena, *Olaia gogoan zaitugu*

eta *Konponbide demokratikoa Euskal Herriarentzat* lelopean. Ertzaintzak kargatu egin zuen amaieran. Alde Zaharra pintadaz josia zela —*Olaia, herriak ez du barkatuko* eta antzekoak— bi mila manifestari inguru abiatu ziren. Ertzaintzarekin tentsio uneak bizi izan ziren ibilbidean. Une batez, manifestari batzuk aurea hartu zieten, eta ertzainak erdian zirela, kargatzeko keinu egin ere zuten.

Bulebarrean amaitu zen manifestazioa, eta, *Eusko gudariak* kantatu ostean jende gehiena Alde Zaharrerako bidea hartzen hasia zelarik, ertzainek kargatu egin zuten. Gomazko pilotakada batzuk bota, eta Alde Zaharreko sarrerak hartu zituzten.

Bilbon ehunka pertsona bildu ziren manifestazioan, eta beste hiriburu eta eskualde buruetan ere egin ziren elgarretaratzeak.

Lehenago, Ertzaintzak ustez autobus batean pintadak egiten ari zen gazte bat, Imanol Arretxe, atxilotu zuen atzo Donostiako Larratxo auzoan. Haren gurasoak Donostiako Antiguako polizi-etxera joan ziren, eta atzo bertan aske irtekekoa zen.

AABek adierazi dute «Gernikako Estatutuarekin eta Foru Hobekuntzarekin jaiotako gazteek ere» —22 urte zituen Kastresanak— «borroka armatura jotzeko beharra» ikusi dutela, eta, frankismoa ezagutu gabe, «hautu latz hori» egin dutela. Herritar eta gazte askok egungo markoa gaunditzeko premia ikusi arren, EAJk eta EAK «Estatutuaren aldeko hautua» egin dutela adierazi dute AABek. EAJri zer aterabide planteatzen duen galdetu diote, gaur egungo egoeratik ateratzeko.

LAB sindikatuak ere mobilizazioetan parte hartzera deitu du. Kastresanak «dena emate-rainoko konpromezua» izan duela adierazi, eta halako gertakari lazgarriak eragozteko «gatazka politikoaren muinari» heldu behar zaiola nabarmendu du. Madrilen eta Parisen ardura gogorarazi, eta EAJk ere «behin betiko bakearen kontrako norabidea» hartu duela dio LABek.



PABLO S. QUIZA

Donostian manifestazio jendetsua egin zen Batasunak deituta, eta amaieran istiluak ere izan ziren, Ertzaintza oldartu egin baitzitzairen.

BATASUNA

Barrenak Kastresana «ukazioaren biktima» izan dela adierazi du

Olaia Kastresanaren heriotzak ezker abertzalean «dolua» eragin duela esan zuen atzo Batasuneko Mahai Nazionalako kide Fernando Barrenak, Donostian. Hilaren lagun eta senideei «samina eta elkartasuna» adierazi, eta heriotza «gatazka politikoaren adierazpen tamalgarria» izan dela erantsi zuen Barrenak.

Espainiako eta Frantziako estatuek Euskal Herriaren eskubideen «ukazioa» egiten dutela salatu zuen Batasuneko kideak, eta egunotan PPko eta PSOEko buruzagiek «askatasun gabezi ikaragarri hori» oso argi adierazi dutela. Zentzu ho-



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Pernando Barrena, atzo, Donostian.

rretan, Kastresana —eta baita *Azkoiti* eta *Sarriegi* ere— «Euskal Herriaren ukazioaren biktima» izan dela nabarmendu zuen.

Hiru belaunalditako militante horien lana eta konpromezua goratu zuen Barrenak: «Demokrazia defizita izan da borro-

kara eraman dituen. Euskal Herriaren eskubideak errespetatzea da gertaera mingarri gehiago ez izateko gakoa; ikusten baita belaunaldiz belaunaldi determinazioa dagoela eskubide horiek lortzeko».

Eskubideen ukazioak «egoera samingarrira» eragin duela esan zuen Barrenak, eta EAJ eta EA alderdiek «Euskal Herriari inposatutako markoa» onartu egin dutela: «Horren defentsa sutua ari dira egiten». Egungo esparrutik autodeterminazioa etor litekeela «itzelezko gezurra» dela esan zuen Barrenak, eta EAJ eta EA Euskal Herriari «esperantza faltsuak» ematen ari direla: «Erabateko utzikeria erakusten dute, herri gisa dagozkigun eskubideen aurrean». EAJ eta EA maiatzaren 13ko hauteskundeen aurreko egoerara itzuli direla salatu zuen, eta Batasunaren «apostu politikoa» gatazka gaunditzea dela erantsi, «eskubide ororen bermean oinarrituta».